

I

Demokraziaz galdezka euskal herrietatik
PAKO GARMENDIA AGIRREZABALAGA

DEMOKRAZIAZ GALDEZKA EUSKAL HERRIETATIK

Denok demokratik?

1

Herrien baitako eta herrien arteko auzi politikoez eztabaidarik badago, **demokrazia** hitza ez da faltako. Kontua da, ia denok erabiltzen dugula hitz hori eta denok agertzen garela konponbide demokratikoen alde. Areago, inor gutxi da bere burua demokratizat jotzen ez duenik. Munduan ia ez dago monarkarik demokraziaren alde hitz egiten ez duenik. Ezta proletarioen diktadura defenditu izan duen komunistarik ere, bera demokrata dela esaten ez duenik.

Horretaz jabetzeko ez dago urrutira jo beharrik. Franco-ren diktadura gaitzesteari uko egiten dion Jaime Mayor-Oreja jaunak, Aznar Espainiako Gobernu buru zela Ministro izandakoak, bere burua Espainiak behar omen duen demokraziaren eredutzat jotzen du. Hona hemen bere hitzetan jaso:

*«¿Por qué voy a tener que condenar yo el franquismo si hubo muchas familias que lo vivieron con naturalidad y normalidad? En mi tierra vasca hubo unos mitos infinitos. Fue mucho peor la guerra que el franquismo. Algunos dicen que las persecuciones en los pueblos vascos fueron terribles, pero no debieron serlo tanto cuando todos los guardias civiles gallegos pedían ir al País Vasco. Era una situación de extraordinaria placidez».*¹

... inor gutxi da bere burua demokratizat jotzen ez duenik.

Frankismoa salatzen ez dutenak ere demokratik direla diote.

¹ Enrique Clemente, Entrevista a Jaime Mayor-Oreja, in: La Voz de Galicia (14/10/2007)

Baita proletargoaren diktaturaren aldeko leninistak ere, demokraziaren aldekoak direla diote.

*«En España se necesitan políticos y partidos que lideren un cambio de actitud personal en cientos de miles de españoles, pero los políticos tenemos que dar ejemplo y regenerar nuestra **democracia**. Hace falta un programa de regeneración».*²

Dirudienez, Mayor-Orejaren baitarako, Francok ez zuen zerikusirik izan XX. mendeko 36ko gerrarekin («*Fue mucho peor la guerra que el franquismo*») eta Francok ezarri zuen diktadura «*egoera erabat lasai-gozoa*» suertatu omen zen. Hala ere, Francoren diktadura salatzekeo gai ez dena bera dugu, bere burua demokrazia indarberritzeko eredutzat eskaintzen diguna.

Baina antzekoa gertatzen da, Alderdi Komunisten diktadura salatzekeo gauza izan ez diren leninista askorekin ere. Adibiderako ETAre V. Batzarraren (1965) ondoko buruzagi erreboluzionarioen kasua. Hain zuzen, 1971n Burgo- sen preso zeuden ETAko kideek idatzia da: «*como escribíamos en el ZUTIK 51, la primera aportación fundamental de la V Asamblea fue esbozar los puntos necesarios para la elaboración de la teoría revolucionaria vasca. (...) ETA fue definida en esa Asamblea, sin ningún tipo de concesiones, como una organización socialista y no hay ningún tipo de duda en cuanto al tipo de socialismo que definimos: ni humanista, ni reformista, ni nada por el estilo: marxista-leninista*». Tradizio horri jarraiki adieraziko du ETA-m taldeari atxikitako HASI alderdiak bere «Oinarri Ideologikoak» biltzen dituen agirian, ezinbestekoa dela «proletargoaren diktadura», euskal gizartearen arazoak erabat konpontzeko: «*La sociedad post-capitalista pasará primero por una etapa de transición; la de la dictadura del proletariado y construcción del socialismo. Después ascenderá a una fase superior de sociedad sin clases que será el verdadero comunismo*».³ Ba, horietxen jato-

² Jaime Mayor-Orejaren erantzuna Carlos Segoviari in: El Mundo 555/4/2009

³ H.A.S.I.(Herriko Alderdi Sozialista Iraultzailea): Bases Ideológicas, 1978, III,1.2.3. Derrigorrezko baldintzatatzat jotzen du proletarioen diktadura, ze, ondoren honako hauxe esaten baitu: «... reconocemos que el marxismo en todo su profuso cuerpo doctrinal teórico-práctico y la aportación posterior del leninismo son nuestras fuentes definitivas de teoría y práctica política en todos sus desarrollos: económico, social, jurídico, etc. Es decir que todos los principios del marxismo que han sido enunciados hasta aquí deben ser asumidos por nosotros» (ibid., III, 1.6.3.).

rrikoak eta jarraitzaileak direnek hitzetik hortzera esango dizute berea dela «alternatiba demokratikoa», gaurko egunetaraino esan ere. ETAk 2009an plazaratu dituen agirietan ere horixe dio, eurek direla benetako demokraziaren aitzindari: «*Euskal Nazio Askapenerako Mugimendua prest da Euskal Herriko indar demokratikoekin gatazkaren konponbide demokratikorako eta aldaketa politikorako estrategia eta konpromiso bateratu bat adosteko*».⁴

Demokraziaren etsaitzat jotzen dituzte bai PPko buruzagiek eta bai ETAk Ibarretxe Lehendakaria eta bere Alderdia. Eta ez da harritzekoa. Ibarretxe eta bere aurretik Lehendakari izan direnak Agirre Lehendakariaren ezpalekoak baitira. Honek bere azken Gabonetako agur-deian, honela zioen:

*«Euzkadi entera siente violenta repulsa contra el régimen (de Franco, f.g.). Constituye un movimiento de fuerzas libres, adversario de toda dictadura que la conciencia popular vasca rechaza. Esa uniforme oposición y esa variada actividad de las organizaciones democráticas de todo género son justamente las que representa, en su unidad convergente y anhelos comunes de libertad, el Gobierno vasco, en nombre de una auténtica democracia, unida en la busca sincera de los medios más adecuados para restaurar la libertad de nuestro pueblo, la dignidad menospreciada de sus hombres y su progreso en la paz».*⁵

Agirre Lehendakariak Francoren diktadura bezainbat kritikatu du Alderdi Komunistek manupean dituzten lurraldeetan ezarritako diktadura, baina garbi adieraziz biak direla demokraziaren kalterako, pertsonen eta herrien askatasuna eta berdintasuna galarazten dituztelako. Salatzen du, gainera, era bateko zein besteko diktaduren kontrako borroka, giza duintasunaren alde dauden denek bultzatu beharrekoa dela.

Datozen tradizioetatik datozela, gaur egun gure ingurune hurbilari eragiten dioten alderdi eta buruzagi politikoe,

Agirre Lehendakariak, frankismoaren eta estalinismoaren kontra, egin zuen borroka, demokraziaren alde.

⁴ «Euskadi Ta Askatasunak Euskal Herriari» in: GARA, 2009/04/12

⁵ José Antonio de Aguirre y Lekube: Mensaje de Gabon 1959/12/24

XXI. mendearen hasierako urteak aberatsak izan dira, hain zuzen, jokabiderik kontrajarrienak demokraziaren izenean bultzatu eta gauzatzeko.

Demokraziari gagozkiola ... hitzak eta esnahaiak nahasten baditugu, gu geu murgilduko gara nahasmenaren zurrunbiloan.

beren buruak identifikatzeko gehien erabiltzen dituzten hitzen artean ditugu «*demokrazia*» eta «*demokratikoa*». Beren eskuko proposamenak erabat demokratikoak direla esaten dute eta beren kontra ari direnak, berriz, benetako demokraziaren kalterako direla.

Asmo eta erakunde hain ezberdinak izendatzeko hitz bat bera erabiltzen denean badago arriskurik, hitz horrek ia ezer ez bereizteko.

XXI. mendearen hasierako urteak aberatsak izan dira, hain zuzen, jokabiderik kontrajarrienak demokraziaren izenean bultzatu eta gauzatzeko. Gurean benetako demokraziarik ez omen dagoela-eta, ezin omen dira kritikatu ETA-ren krimenak. Geure borondatez Euskal Autonomi Elkartea osatzen dugun herrikideoi, geure herrigintzarako araubidea berritzeaz galdetzea demokraziaren kontrakoa omen da, batzuentzat Espainiaren batasun nazionala auzitan jar lezakeelako eta beste zenbaitentzat euskaldun-euskotar guztiak kontuan hartzen ez dituelako. Bada demokraziaren izenean Eusko Lege Biltzarreko Burua kartzelan ikusi nahi izan duenik, hautetsi guztiei legezko baldintza demokratiko berdinak zor zaizkiela defendatzeagatik.

Irizpide eta jokabide hain antagonikoak dituztenek, hala ere, beren buruak demokrata direlakoan eskaintzen dizkigute. Eta, gainerako herrikide denoi, eurekin bat egiteko eskatzen digute, «benetako» demokrazia bere betera eramateko.

Demokraziari gagozkiola, herrikideoi sortzen zaigun lehen arazoa da, beraz, hitz berdinen azalpean eskaintzen zaizkigun eduki ezberdinak ahalik eta zehatzen bereiztea. Hitzak eta esnahaiak nahasten baditugu, gu geu murgilduko gara nahasmenaren zurrunbiloan eta, horrela, ezin izan gaitzke geure buruen jabe herrigintzari buruzko eztabaidan.

Hargatik uste dut, beharrezkoa zaigula, hitzak hitz, esae-rak esaera, alea eta lastoa bereizten ikastea. Eta ez pentsa, hemen alerik gabeko lastorik dagoenik. Lasto berdinarekin ale ezberdinak saltzen baitira gure artean. Hitz bat bera erabiltzen baita, asmoz eta egitez eduki ezberdineko herri-asmoak eskaintzeko.

Demokrazia: izena eta izana

2

Izena eta izana, izendatzea eta izanaraztea, ... zer da baina, demokraziaz ari garela? Demokraziak ba ote du berezko alerik, bere berea duenik? Hori da lehenik eztabaidatu behar duguna.

Demokrazia hitzaren beraren jatorrizko esanahiari bagozkio, euskaraz, *auzoagintea* edo *auzoagintaritza* deitu beharko genuke. Atenasen *politeia* edo *herrigintza* zertu eta bideratzeko moduetako bat izan zen *demokrazia*, hain zuzen, Atenaseko herria osatzen zuten *auzo ezberdinetako auzotar denei herrikidetza aitortu eta eurak denak herrigintzaren erantzule egiten zituena*.⁶

Zer ote zuen herrigintza modu horrek berezkoena? Auzo bakoitzean auzokide ziren den-denak zirela herrikide, beraz, herriko batzarkide, eta denek zor zuten herrigintzari zegozkionak eztabaidatzen, erabakitzen, betearazten eta epaitzen parte hartzea. Parte-hartze horretan, baina, bakoitza zen bere hitzaren jabe eta hitz horren eraginean sustraitzen zen beren *isegoria* (eztabaidan denak berdin) eta *isonomia* (arau berdinen mendeko denak). Hitzaren jabe izatearena azpimarratzen da bereziki Periklesen hileta hitzaldi ezagunean, Atenaseko herrigintza demokratikoa bestelako herrigintza-ereduekin alderatzean. Jakinaren gainean hitz egitea eta emandako hitzaren jabe izatea auzotar bakoitza: horra hor demokraziaren jatorrizko esanahiaren sustraietako bat.

Winfried Schmitz Doktore Irakasleak⁷ honela laburbiltzen digu athenaiar demokraziaren funtsezkoena:

Atenasko demokrazia, euskaraz, *auzoagintea* edo *auzoagintaritza*.

Auzo bakoitzean auzokide den-denak herrikide.

⁶ Auzo jakin batean bizi ziren den-denak etziren auzokide, garai hartan ez bai zituzten halakotzak jotzen ez jopuak, ez emakumeak eta ezta, bertan bici arren, atzerrietatik etorriak ere. Auzo bateko bizilagunetatik heren bat izango zen auzokide eta, beraz, herrikide.

⁷ Prof. Dr. Winfried Schmitz aditurik finenetakoa dugu athenaiar demokraziari dagozkionetan. Liburu eta saiakera asko ditu idatziak. Hemen laburbiltzen dena, 2008/2009 ikasturteko neguko sehilekoan eskainitako bere klase oharretatik jaso dugu: Prof. Dr. Winfried Schmitz, Vorlesung: Die attische Demokratie, in: RHEINISCHE FRIEDRICH-WILHELMS-UNIVERSITÄT BONN, WS 2008/2009, PHILOSOPHISCHE FAKULTÄT, INSTITUT FÜR GESCHICHTSWISSENSCHAFT/ALTE GESCHICHTE <http://www.altegeschichte.uni-bonn.de/VDemokratie-3.pdf>

Demokraziaren jatorri historikoari dagokionez...

auzokideak eurak dira

elkarbizitza politikoa nola planteatu eta gauzatu erabakitzen dutenak.

Zertan datza proposamen politiko baten eduki «demokratikoa» edo «ez-demokratikoa»?

- demokrazia athenaiarra bitartekorik gabeko demokrazia da (auzokideek zuzen-zuzenean hartzen dute parte);
- demokrazia athenaiarrean erroko printzipioak dira herrikide denen «askatasuna» eta «berdintasuna» herrigintzan parte hartzeko;
- demokrazia athenaiarra ez dago, oro har, ordezkapenean oinarritua. Erakunde politikoetan garrantzikoena Herriarren Biltzarra da. Herrikide bakoitzaren boterea, baina, zoriak, gaitasun azterketak eta egindakoez erantzun beharrak mugatzen dute.
- Gizarteko beste erakundeak ziurtatzeko dago egitura politikoa; adibidez, etxea (hezkuntza, eskola eta etxeko enzarteratzea ez dira inola ere eginkizun politikoak).

Demokraziaren jatorri historikoari dagokionez, beraz, esan daiteke muinekoena dela auzokideak eurak direla herritarren elkarbizitza politikoa nola planteatu eta gauzatu erabakitzen dutenak. Esparru politikoak, gainera, ez du auzokideen elkarbizitza osoa arautzen eta antolatzen. Areago, politikaren egitekoa da auzoak osatzen dituzten etxeen baitako eta elkarren arteko bizikidetzak ziurtatzea.

2.1 Demokrazia hizpide, gaur egun

Gaur egun «demokrazia» hitza erabiltzen denean, baina, zer aditzera emateko erabiltzen da? Zertan datza proposamen politiko baten eduki «demokratikoa» edo «ez-demokratikoa»?

«Demokrazia» hitza eta «demokratikoa» izenlaguna, pertsonen, auzoen, herritarren eta herrien elkarbizitzari dagozkion harreman moduak izandatzeko erabiltzen da noski. Gizon-emakumeok berez gara elkarrekikoak. Euskarazko esaerak dioten bezala «mendiak ez dau mendirik behar», baina «gizakiak gizakidea behar du». Giza harremanak edo gizon emakumeon artekotza arautu eta gauzatzeko modu bat denez demokrazia, kasuan-kasuan bere edukia zein den jakiteko, hiru aldetatik azter daiteke bere muina:

- nor edo nortzuk **diren artekotza hori erabakitzen dutenak**

- erabakitzen edo bultzatzen duten artekotzaren edukia
- nola erabakitzen duten.

Giza «artekotza» historikoa gauzatzen edo planteatzen den orotan bereiz daitezke hiru alderdi edo esparru hauek.

Nork erabaki: Denak – Batzuk?

2.1.1

Geure orain-hemengo demokraziari dagokionez, aurrera ala atzera egin dugun epaitzeko eztabaidagune kritikoena, agian, horixe izan daiteke: ea auzokide garenok zer-nolako esku-hartzea dugun geure herrigintzari dagozkionetan.

Auzo denek ala batzuek bakarrik hartu behar ote dute parte herrigintzan? Auzokide denek ala batzuek bakarrik? Esan dugunetik argi egon beharko litzateke demokraziaren berarizkoa dela auzoko den-denei aitortzea eta eskatzea herrigintzaren erabakitzailerik, eragile eta zaindari izatea.

Baina gure artean badago demokrazia gehiengoaren gobernu forma bezala aitortzeko joera. Eta hori ez da demokrazia. Are gutxiago izan liteke demokrazia auzo gutxi batzuetako kontua, eta are gutxiago auzokide gutxi batzuen eginkizuna. Nondik datorren oker hori? Agian, erabakiak hartzeko formula bat dena joanari demokratikoaren edukiarekin nahastetik.

Auzokideak eta herrikideak askatasunez ari direla, normala da beren harremanak arautuko dituzten herri baldintzei buruzko eztabaidak sortzea. Auzokide eta herritar guztiak ados jartzea ezina denean, muturrekoka erabakitzea baino zibilizatuagoa eta ekonomikoagoa da indarrik gehiena zeren alde dagoen galdetzea eta elkarri hortzak txikitu gabe auzia erabakitzea. Muturrekoka ere gehienek irabazi ohi dute gutxienek kontra (batez besteko berdinetan, noski).

Arazoa, baina, zera da: gehiengorik gehiena bere alde duenak ere demokrazia zapuzten duela, baldin-eta gutxiengo den taldeari herrigintzan parte hartzeko aukera eragozten badio. Demokrazian auzotar den-denen eskumenak, eskubideak eta zorrak bermatu behar dira, hain zuzen, demokraziaren berarizkoari dagozkionetan.

Auzo denek ala batzuek bakarrik hartu behar ote dute parte herrigintzan?

gehiengorik gehiena bere alde duenak ere demokrazia zapuzten du

baldin-eta gutxiengo den taldeari herrigintzan parte hartzeko aukera eragozten badio

zergatik mugatu behar du gehiengoak ere ahalmena eta indarra.

Ondorioz, hauxe da planteatzen den arazoa: zergatik mugatu behar du gehiengoak bere ahalmena eta indarra, gutxiago direnei ere beren buruen jabe izateko aukera eskainiz?

Galdera hau ez da inola ere arazo teknikoa, etikoa baizik. Demokrazia, beraz, ez da bideragarria sustrai etiko jakin batzuetan oinarritu gabe. Horietan oinarrizkoena, auzokide bakoitzari nor den aitortzea, bere buruaren jabe izateko aukera zor zaiona.

2.1.2 Zer erabaki: berdintasuna - askatasuna?

Demagun auzo eta auzokide den-denak direlarik eurei dagokien herrigintzaren eragile eta erantzule, den-denek aho batez erabakitzen dutela, beren buruak kaiser edo diktadore baten morroi deklaratzeko, bere meneko alegia. Hartu duten erabakiaren edukia, demokratikoa ote litzateke?

Erabaki demokratikoez ziurtatu behar dutena, hain zuzen, auzokide edo herrikideen berdintasuna eta askatasuna dira, herrigintzari dagozkionetan parte hartzeko. Eduki horren kontrako erabakiak demokraziaren edukiaren galarako dira.

Erabakien eduki demokratikoak, beraz, hamaika arazo jartzen dizkigu, gogoeta etiko sakon batetik abiatu ezean, eta konponbide zaila dute.

Edukiaz ari garela, gogora ekarri beharrekoa da, M. Weber-ek dioena: demokraziak ez duela berezko gizarte izaterik, esperientzia demokratiko jakinetatik kanpo.⁸ Nola dakigu zein neurritan den esperientzia horietako bakoitzaren edukia demokratikoa? Esperientzian partaide diren auzokideen gizarte izaera eta iharduera, askatasunezko eta berdintasunezko herri baldintzetan garatzen direlako, denak direlarik beren buruen jabe. Jabeturik ari direlako

herrigintza edo estatugintza politikoa «demokratikoa dela esan dezakegu, berdintasunaren eta askatasunaren goiburuak betetzen dituen neurrian»

⁸ Max Weber: *Wirtschaft und Gesellschaft. Grundriß der verstehenden Soziologie*. 5., revidierte Auflage. Besorgt von Johannes Winckelmann. Studienausgabe, Tübingen: J. C. B. Mohr (Paul Siebeck), 1980 (1. Auflage 1921-1922), bereziki § 2. *Herrschaft und Verwaltung. Wesen und Grenzen demokratischer Verwaltung*

(konszienteki, jakinaren gainean) eta erantzukizunez jokatzen dutelako (norberak egindakoen erantzule izanik).

Beraz, demokraziaren arauzko edukiari dagokionez, Ulrich Steinvorth irakasleak dioenarekin bat egiten dugu: herrigintza edo estatugintza politikoa «*demokratikoa dela esan dezakegu, berdintasunaren eta askatasunaren goiburuak betetzen dituen neurrian*».⁹

Hitza – Lana 2.1.2.1

Auzokide bakoitza bere buruaren jabe gertatzeak bi baldintza ditu oinarri. Bere eskuko izatea eta bere hitzaren jabe.

Nola gerta liteke baina auzokidea, bere hitzaren jabe, bere lanaren jabe ez bada? *Demos*, auzoa da; *oikos*, etxea. *Demokrazia* eta *ekonomia*, *auzokrazia* eta *etxenomia* bereizgarri dira, baina ezin dira elkarrengandik erabat eten, Atenasko esperientzia demokratikoari bagagozkio. Herrigintzan hitzaren jabe izateko, ekonomian bere lanaren jabe izan behar. Hori izango da Atenasko herrigintzari buruzko eztabaidetan behin eta berriz jorratuko den auzi-mauzietako bat. Sarritan galdegingo da, ea bere oinarritzko beharrak asetzeko gai ez dena izan ote daitekeen gai denen herrigintzari dagozkionez arduratzeko.

Gaurko gure gizarte bizitza oso bestelakoa da. Baina, *hitza* eta *lana*, *auzoa* eta *lantegia*, etxea eta ogibidea, auzo-bizitza eta laneko mundua ... biak dira erabakigarri gure bizitza erreala tankeratzerakoan. Eta herrigintzak –demokratikoak edo bestelakoak– bi oinarriko esparru horien zer-nolakotzean erakusten du bere eraginik nabarmenena.

Demokraziari buruzkoak gaur bertan eztabaidatzerakoan, beraz, aintzakotzat hartu beharko dugu, ea zer-nola garen geure hitzaren eta lanaren jabeago, zer-nola gerta-

Bere eskuko izatea eta bere hitzaren jabe.

hitza eta *lana*,
auzoa eta *lantegia*,
etxea eta ogibidea,

⁹ Ulrich STEINVORTH, *Normative Grundlagen der Demokratie*, in: Kurt BAYERZ, *Politik und Ethik*, Reclam, Stuttgart 1996, (139-167), p. 141

auzo-bizitza eta laneko mundua

tzen garen geure buruaren jabeago auzoan eta lanean. Auzokideak geure jakinaren gainean, askatasunez eta erantzukizunez, nola garen geure hitzaren eta lanaren jabeago, eta zer-nola lortzen dugun benetan eskuko eta parte-hartzaile izatea geure giza(arteko) harremanak arautzen dituzten herri baldintzak eztabaidatu, erabaki, betearazi eta zaintzean: horra-hor demokraziako agintaritzaren ezaugarri garrantzizkoa.

Perikles-en garaiko Atenasen, etxe-auzoetako gizarte bizitza eta herrigintza politikoa nahiko berezirik zeuden. Gaur, baina, artez eta moldez, baldintzapen ikaragarriak ditugu herri baldintzen eta gizarteko garapenen artean.

demokraziari buruzko eztabaida gizarte eta ekonomia ereduari estu-esturik lotuta.

Ez da, beraz, harrizkoa, demokraziari buruzko eztabaida gizarte eta ekonomia ereduari estu-esturik lotuta agertzea. Askorentzat, boterearen kontrola da demokrazian erabakitzen den borroka, ekonomia- eta gizarte-eredu jakinak aurrera ateratzeko kontrola.

Hona hemen demokraziari buruzko eztabaidaren gune kritikoa, etikaren mailan planteatu eta argitu beharrekoa.

2.1.2.2. *Sinismenak – ohiturak – hezkuntza*

Auzokideak, baina, ez du bere izaera ogibidean asetzen.

Auzokideak, baina, ez du bere izaera ogibidean asetzen. Ekonomia ereduari buruzko eztabaidarena bezain larria da, hargatik, herritarren izaera kulturalari dagokiona.

Auzokideetako gehienek beren hizkuntza edo erlijioa edo jolas ohitura jakin bat herri hizkuntza edo herri erlijioa edo herri jolas bakartzat erabakitzen badute –gutxiengoaren hizkuntzak edo erlijioak edo jolasak eragotziz– demokraziaren jatorrizkoena zapuztu da.

Eztabaida, hain zuzen, zera balitz, gehiengo batek hizkuntza bakar bat ezarri nahi duela, beren herri-harremanetarako; erabaki hori demokratikoki gauzatzekotan, aukera berdina eskaini beharko zaie gutxiengoei beren aukera aurrera ateratzeko. Europa mailan bezala balio beharko luke horrek edozein estatutan eta herrialdetan.

Gehiengoaren eta gutxiengoaren arteko harremanak, agerikoa denez, noiz-non plantatzearen mende daude. Ga-

rai batean, lurraldea kontrolatuz, bertakoak kontrolatzeko eskumena lortu nahi zen bezala («cuius regio, eius religio»), gaur egun jenderik gehienaren botoa irabazi nahi da, lurraldearen okupazioa ziurtatzeko.

Demokraziaren ikusgunetik, beraz, galdera jarria dago: ea non ezarri behar diren botere demokratikoaren mugak herritarren izaera kulturalari dagokionez. Hona hemen galdera etikoaren beste gune bat.

non ezarri behar diren botere demokratikoaren mugak herritarren izaera kulturalari dagokionez.

Nola erabaki demokrazian

2.1.3

Agian, demokrazia aipatzen denean, erabakitzeko metodoa dute buruan gehienek. Baina metodologia horri dagokionak ez dira bakarrik auzi-mauzi teknikoak.

Demokrazia ulertzeko era ezberdinetan, gizakiari eta gizarteari buruzko ikuspegiak baitaude oinarri.

Ikuspegi ezberdin horien adierazgarri diren puntu batzuk jorratuko ditugu, arin bada ere.

Demokrazia ulertzeko era ezberdinetan,

gizakiari eta gizarteari ikuspegiak oinarri.

Demokrazia: Gertakizuna - Eginkizuna?

2.1.3.1

Izan dira demokratikoki boterea eskuratu eta diktadura ezarri izan dutenak. Horrelako erabaki bat, demokratikoa ote da? Ez, inola ere ez, demokrazian berariaz zor zaielako auzokide den-denei etorkizuna irekirik izatea.

Demokraziaren auziari ikusgune honetatik helduta, beraz, gertakizun baino gehiago da eginkizun. Gure artean, baina, zenbaitek –ene iritzirako gehiegik– demokrazia gertakizuna dela uste du (inoiz gertatua edo inoiz gertatzekoa, baina erabatekoa, historia zeharo erabaki zuena edo erabakiko duena, zerbait fundatzailea). Horrelako ikuspegiak ari direnek, gehienetan, eurek kontrolatzen duten edo kontrolatu lezaketen gertakizun batekin identifikatzen dute demokrazia, eurek lideratu lezaketen zerbaitekin. Eta besterik uste duten auzokideak *benetako* demokraziaren etsaitzat jotzeko ohitura dute horrelakoek. Agian bereizketarik egin-

Demokrazia, gertakizun baino gehiago da eginkizun.

go dute etsai omen direnen artean, jakinaren gainean edo oihartzeko, baina bereizketa ere eurek egingo dute. Eta hor-
tik pauso bat besterik ez dago, horrelako auzokideak birre-
dukatu behar direla sinistera, horretara behartuz, legez edo
indarrez —edo biez— baliatuz.

Gertakizun fundatzaile hori Konstituzioarekin —non-
goarekin eta noizkoarekin, beste auzi bat da— edo halako
borrokatan lortutako garaipen jakin batekin edo talde ja-
kin baten sorrerarekin identifikatzen den azaltzea gorabe-
hera handikoa izan daiteke; baina jarrera hori agergerri li-
tzateke edozein kasutan: demokrazia auzokidetzaren soiletik at
legokeen zera bakar baten ondorio jartzearen agergerri.
Horrelakorik egiten denean, auzokide direnez herrikide
beharko luketenak —alegia, beren buruaren jabe—, delako
zera horren arabera banatuko dira, batzuek nagusi eta bes-
teak morroi. Nor izango da horrela bere buruaren jabe?

2.1.3.2 Arrazoiz — Indarrez

Hizpidezko ezbaian arazoak argituta, beren izaeraren jabe
direnek, gizalegeko arrazoibidea aukeratuko duten esperan-
tza dute demokrazian ari direnek. Baina, arrazoizkoa dena
onartzen ez dutenekin, zer egin? Eta nork erabaki lezake
horrelakorik? Non dago muga? Herrigintza orok du bere
baitan galdera hori. Herrigintza demokratikoak, hala ere,
bere biziko auzirik larriena du honetan.

Auzokideak beren buruen jabeago izatea baldin bada
helburua, nork babestu behar du auzokidea helburu hori
eragotzi nahi dutenengandik? Ez dugu ezagutzen auzo-ag-
intean oinarritutako herrigintzarik, auzo bizitza zapuztu nahi
zutenen kontra borroka egiteko nolabaiteko indarraren era-
bilpena arautu ez duenik,. Baina indarraren erabilpen de-
mokratikoa, herritarren gero eta esku-hartze sakonagoa bi-
deratu lezakeena, beti dago herri integrazioaren mende.

Gurean, badugu esperientzia bat, oso adigarria dena:
Gipuzkoa *errepublika militar* bezala autodefinitu zenekoa.
Bertako Ahaide Nagusien kontra bildu ziren gipuzkoarrik
gehienak, alegia, garai hartan Gipuzkoako auzoak, herriak

Auzokideak
beren buruen
jabeago izatea
baldin bada
helburua,
nork babestu
behar du
auzokidea
helburu hori
eragotzi nahi
dutenengandik?

eta bailarak babestearren indarra erabiltzeko eskumena zuten etxeetako arduradunen kontra. Nazkatuta zeuden indarra beren mesedetan eta herritarren kaltetan erabiltzen zuten handizkiekin. Getarian bildu ziren eta erabaki sendoz eraso zieten, Erregeari ere laguntza eskatuz eginkizun horretarako. Garrantzizkoena, baina, zera: ordutik aurrera, auzotar guztiak zeudela behartuta herria, herrikideak eta beren herrietatik pasatzen ziren atzerritarrak babestera. Horregatik deitu zioten gipuzkoarrek aurrerantzean beren eskuko aginte barrutiari *errepublika militarra*, gaur egun, ertzainen errepublika esatea adina litzatekeena.

Bere burua demokratikoki babestu nahi duen herriak, bere herrikideen erantzukizunean oinarritu behar du. XXI. mendearen ezaugarria da dagoeneko, gizarte bizitzaren sarete gero eta subjektiboagoa. Babesik ez dute eskaintzen harresiek, baizik eta herrikideen erabakimenak.

Arrazoibide demokratikoaren kontra erasotzen duenari (hilketaz, lapurretaz, mehatxuz ...) indarrez aurre egitea azken muturreko erabakia da baina burutu beharrekoa, edonori gizaki denez, zor zaizkion eskubideak errespetatuz. Horrelako egoerak ahalik eta gehien ekiditeko, herritar ia denek hartu behar dute beren gain auzokideen ardura eta kezka, arrazoiz ekin-eragin-eginez, eginbide horren ardura profesionala dutenekin elkarlanean.

Indarraren erabilerari mugak non ezarri: hona hemen etika markatzen duen galderetakoa.

Agindu – Manatu 2.1.3.3

Euskaraz orain gutxi arte ondo bereizi izan dira *agindu* eta *manatu*. Agintzea: hitza ematea, zerbait beteko dela ziurtatzea, ... Manatzea, aldiz, zerbait egitera behartzea, ordena ematea. Demokraziak ere herrigintzako betebeharrak gauzatuko dituzten agintariak eskatzen ditu. Baina agintaria, demokratikoa bada, herrikideei zor zaie: eurei emandako hitza betetzea zor baitu. Eginkizun hori betetzeko manatu egin behar du, ordenak emanaz. Herriari emandako hitzak egiten du bidezko bere esku lezakeen manutza edo bote-rea.

Gipuzkoa
errepublika militar
bezala
autodefinitu
zenekoa, Ahaide
Nagusien kontra
bildu zirelarik.

Indarraren
erabilerari
mugak non ezarri:
hona hemen etika
markatzen duen
galderetakoa.

... agintaria,
demokratikoa
bada, herrikideei
zor zaie: eurei
emandako hitza
betetzea zor baitu.

Herrikideen agintaritza sendoagoa izan da aginte indarra sail ezberdinetan banatuta gertatu denean.

Gaur egun badago manutza herrikideen zainpetik ete-teko arriskua. Arrisku hori, batez ere, botereen kontzentrazio politikoan ikus daiteke. Asko hitz egiten da botere banaketaz, baina, ene ustez, galdera oker jarrita. Zenbaitentzat, boterea berez da bat eta bakarra (subiranoa alegia) eta bakar den horren desglosea besterik ez litzateke botere banaketa. Bada, horrela denean, demokraziak jai du.

Herrikideen agintaritza sendoagoa izan da aginte indarra sail ezberdinetan banatuta gertatu denean eta, aldi berean, artez edo moldez, aginte indar den-denek herriari zor izan diotenean beren egiteen eta hutsegiteen erantzukizuna. Munduko herrialde batzuek beste batzuek baino demokrazia esperientzia gehiago dute; , ez lider karismatiko disdiratsuagoak izan dituztelako, baizik aginte-indarren sareak hesola asko izan dituelako euskarri, eta ez bakarra (subiranoa litzatekeena).

2.1.4 Demokrazia - etika

Aipatu ditugun gai guzti horien inguruan, argibide sakin ezin lor daiteke, elkarbizitzako harremanen etikari heldu gabe. Artekotzaren nor demokratikoak, definizioz, auzokideak badira, beren jarrera, ikuskera, joera eta jokaera dira erabakiorrak. Horrixe deitzen diogu etika, bidezkoa, bide dena, egiteko zor duguna argitzen diguna.

Demokraziaren berarizkoari dagozkionetan bidezkoa zer den ez dago gutxiengoaren edo gehiengoaren mende.

Demokraziaren berarizkoari dagozkionetan bidezkoa zer den ez dago gutxiengoaren edo gehiengoaren mende. Den-denei zor zaie herrigintzan esku hartzea eta den-denek zor dute, beste auzokide guztiekiko errespetu zintzoa. Beste herrikideei mehatxurik edo erasorik edo bortxarik edo torturarik egin-eragiten dion edozein da elkarbizitza demokratikoaren etsai eta zorrotz epaitu behar da, komeni den zigorrara ezarri. Eta zigor berdina merezi dute gehiengoaren babesaren izan lezakeen gaizkileak edo bakarrik bere kasa ari izan denak. Demokratik ezin du horretan bereizketarik egin, demokrata izateari uko egin gabe.

Eta gurean bereizketa asko egin da eta egiten da, aurreko urteetatik baitator, gure artean, gaizkileak ezberdin epai-

tzea. Zenbaitek egiten duten epaiaren arabera, demokrazia defenditzeko erail zuten Zabala eta beste zenbaiten epaiaren arabera, demokrazia ekartzeko erail zuten Korta. Bereizketa horretatik abiatuz gero, demokraziarenak egin du, hain zuzen sustrai etikoak huts egiten duelako.

Ez dut zalantzan jartzen, demokrazia babesteko, auzokideen eta demokraziaren oinarritzko eskumen eta bizi-balidintzen kontra jokatzeko dutenak –legez epaitu ondoren– zigortu egin behar direla. Baina horiek ez beste denek behar dute parte hartzeko herri aukera berdina, auzokide eta herritarren borondatearen arabera.

Kontua ez baita, herri ordezkari jakin batzuekin bat etortzea ala ez etortzea, baizik herritarren ordezkari direnei, ordezkatu behar duten hori ordezkatzeko aukera berdinak eskaintzea.

Demokrazia gaur: erronka etikoa

3

Demokraziaren antzinako eta jatorrizko esanahitik abiatuta, hainbat galdera plazaratu dira. Erantzunak ez dira bibrildu. Galderak jartzetik abiatu behar delako. Demokraziak gaur egun duen erronkarik larriena erronka etikoa da. Herrikide bakoitzaren baitan ere erantzun beharrekoa. Baina auzokide bakarrak ezin lezake demokraziarik garatu. Denen artekotza burujabea eskatzen baitu, bakoitzaren besteekiko ardura eta erantzukizuna bilbatzen dituen.

Euskalerriko auzoetako herrigintzak, XXI. mende honen hasierako urteetan, erronka latzak ditu bere gain. Aldaketa izugarriak bizi ditugu auzokide eta lankide izateko moduetan. Gutako bakoitzaren hitza eta gutako bakoitzaren lana ziber-bilbeetan (zibernetikak ekarririko bilbe berrietan) sare-tutako auzo eta lantegietan zertzen eta garatzen dira gaur egun. Milaka urtez, Pirinio mendietan eta bere inguruetan, bideratu izan diren auzogintza ereduaren baitan egin izan dute aurrera euskalerriek eta, beraz, iraun izan du Euskalerreriak. Eredu horiek zer ote duten baliozkoa, orainaldian herrigintza demokratikoari bide berriak ebakitzeko, eta zer

Zigor berdina merezi dute gehiengoaren abesa izan lezakeen gaizkileak edo bakarrik bere kasa ari izan denak.

Demokraziak gaur egun duen erronkarik larriena erronka etikoa da.

...
demokraziarena
geuk ebaki
beharreko bidea
dela, ibili ahala
ebakitzen jarraitu
beharrekoa
gainera.

Erantzun zuhurrik
ez lukete, ordea,
demokraziaren
bidetik, gogoeta
etikoak huts
egingo balu.

du ten dagoeneko bideragarri ez dena, eztabaidan jarri beharrekoa da. Eta, orobat aztertze ko gaia da nola gerta ote gaitzkeen geure buruaren jabe, alegia, hitzaren eta lanaren jabe, oraindik ere euskaraz bizi nahi dugunok aldarte berriotan.

Kontua da, demokraziarena geuk ebaki beharreko bidea dela, ibili ahala ebakitzen jarraitu beharrekoa gainera. Baina badugu arriskurik gure herrigintza demokrazia bidetik urruntzekoa. Halaber, aukera ederrak ere baditugu demokrazia bidetik sendotzeko elkarrekiko herri bizitza. Nondik joko dugu? Hartzen dugun norabidearen eta gure indarrak antolatze ko moduaren mende dago. Biak dira beharrezko.

Orain arte esandakoekin, beraz, zenbait galdera ekartzen saiatu naiz atarira. Bakoitzak izango ditu hamaika gehiago.

Erantzun zuhurrik ez lukete, ordea, demokraziaren bidetik, gogoeta etikoak huts egingo balu. Hargatik dira, ondorengo orrietan On Jose Maria Setien jaunak eskaintzen dituen gogoetak hain premia zkoak eta garrantzi handikoak. Halare ez luteke indarrrik, demokrazia indartzeko, eztabaida sakon bat bideratzen lagunduko ez balute, auzokide bakoitzaren baitan eta denen artekotzan.

Pako Garmendia, 2009-09-01